

1/2023 akta

**OSATEK, S.A. SOZIETATE PUBLIKOAREN ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAREN AKTA, 2023KO MARTXOAREN 30EAN EGINA**

Presidenteak deituta, Administrazio Kontseilua eratu da, Osatek, S.A.-ren egoitza sozialean (Urkixo zumarkalea 36, 5.a, 48011 Bilbao), 1. aretoan, beheko solairuan, 2023ko martxoaren 30eko 16:00etan. Hona hemen bertaratutakoak eta gai-zerrenda:

**BERTARATUAK:**

**LEHENDAKARIA:**

José Luis Quintas Díez jauna

**BATZORDEKIDEAK:**

M<sup>a</sup> Rosa Pérez Esquerdo andrea

Víctor Bustamante Madariaga jauna

Hernando Lacalle Edeso jauna

Iñaki Arrizabalaga Ormaechea jauna

Fernando Aguirre de Miguel jauna

Susana López Altuna andrea, idazkari gisa.

Josu Xabier Llano Hernaiz jauna ere, Osatek, S.A.-ko zuzendari-kudeatzailea, bertaratu da bilerara, hitzarekin baina botorik gabe.

**GAI-ZERRENDIA:**

1. Aurreko bileraren akta onartzea, hala badagokio.
2. 2022ko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena egitea.
3. Gora jotzeko errekurtsoa, merezimendu-lehiaketaren deialdiko manipulatzaile teknikariaren kategoriako oinarri espezifikoei aurkeztua.
4. Lanpostuak finkatzeko deialdiak.
5. EMko ekipo berriak eta langile-premiak.
6. Lan-baldintzak eta negoziazio kolektiboa.
7. Galde-eskeak.

Jarraian, OSATEKeko zuzendari kudeatzaile Josu Xabier Llano jaunak hartu du hitza, eta gai-zerrendako puntuei heldu die:

**1. Aurreko bilkurako akta onartzea, hala badagokio.**

Aurreko bilkurako akta irakurri ondoren, aho batez onartu da.

**2. 2022ko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena egitea.**

Betean Auditoria SLPk egindako 2022ko auditoretza-txostena irakurri da. Ikuskatutako dokumentazioan honako hauek daude: 2022ko abenduaren 31ko balantzea, galera eta irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, diru-fluxuen egoera-orria eta memoria.

Zuzendari kudeatzaileak auditoretza-txosteneko datuak berrikusi ditu, eta ondorioztatu du kontuak enpresaren egoeraren irudi fidela adierazten dutela. Gainera, auditoretza-txostena ikusita, kudeaketa-txostenak jasotzen duen informazioa bat dator 2022ko ekitaldiko urteko kontuetako informazioarekin, eta haren edukia eta aurkezpena bat datoz aplikatu beharreko araudiarekin.

Bilerak aurrera jarraitu du, 2022ko ekitaldiko urteko kontuei eta kudeaketa-txostenari buruzko informazioarekin. Hona hemen kontu horien eta itxiera ekonomikoaren daturik esanguratsuenak:

- Egoera-balantzea 2022ko abenduaren 31n:  
Aktiboa guztira (arrunta eta ez-arrunta): 14.776.575 €  
Ondare garbia + pasiboa: 14.776.575 €
- 2022ko abenduaren 31ko galdu-irabazien kontua:  
Galerak eta irabaziak: (-673.484) €
- 2022ko ekitaldiko emaitzak banatzeko proposamena  
Banaketa-oinarria: Galerak eta irabaziak: (-673.484) €
- Ibilgetu materiala:  
Amaierako balio garbia: 7.509.841 €
- Ibilgetu ukiezina:  
Amaierako balio garbia: 349.916 €
- Zerbitzuak emateagatiko diru-sarrerak:  
EM: 24.221.403 €  
Guztira: 24.221.403 €
- Langile-gastuak: 19.206.089€
- Ustiapeneko beste gastu batzuk: 3.174.486€

Sozietatearen plantilla finko osoa 2022/12/31n: 109 (69 emakume eta 40 gizon)

Ondoren, zuzendari kudeatzaileak kudeaketa-txostenaren atalak azaldu ditu. Emandako dokumentazioaren berri eman ondoren, eta Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 253. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Administrazio Kontseiluak honako hau erabaki du:

Lehenengoa: Sozietateari dagozkion 2022ko Urteko Kontuen eta 2022ko Kudeaketa Txostenaren formulazioa onartzea, eta Kontseiluan dauden kide guztiak ados daudela adierazteko sinatzea.

Bigarrena: Sozietatearen Akziodunen Batzar Nagusiari jakinaraztea eta proposatzea, hala badagokio, aipatutako 2022ko ekitaldiko urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta emaitzak banatzeko proposamena, Kontseiluan aurkeztutako baldintzetan.

### **3. Gora jotzeko errekurtsua, merezimendu-lehiaketaren deialdiko teknikari manipulatzailearen kategoriako oinarri espezifikoetara aurkeztua.**

Gipuzkoako Erizainen Elkargo Ofizialak iragarki honen aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtsua azaltzen da: Iragarkia, OSATEKeko zuzendari gerentea prest izateari buruzkoa, zeinaren bidez onartzen baitira Manipulatzaile teknikarien kategorian lan-kontratu finkodun langile izateko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak. Iragarkia 2022ko abenduaren 28ko EHAAn argitaratu zen.

Errekurtso horretan eskatzen da sartzeko baldintzat hart dadila, ETE tituluaz edo baliokideaz gain, erizaintzako titulazioa ere. Errekurtsogileak eskabide hau egin du OSATEKen barruan teknikari manipulatzailearen lanbide-kategoria egindako lanak ikusita.

Era berean, errekurtso berean, merezimenduen baremazioa aldatzeko eskatzen da, lanbide-esperientziari buruzko atalean, puntuazio hori bateratuz, lana edozein erakundetan egiten dela ere.

Aurrekariak ikusita, Kontseiluko kideek zuzenbideko oinarriak eztabaidatu eta baloratu ondoren, gora jotzeko errekurtsoa ezatea eta Kontseiluaren erabakia Gipuzkoako Erizainen Elkargo Ofizialari behar bezala jakinaraztea ebatzi da.

#### **4. Lanpostuak finkatzeko deialdiak.**

Ondoren, plantilla finkatzeko ezohiko prozesuaren egoeraren berri eman da, eta gerenteak ordezkaritza sindikalarekin lortutako akordioen berri eman du, deialdien oinarri eta kategoria desberdinetarako deialdi-datei dagokienez, bai merezimendu-lehiaketarako, bai oposizio-lehiaketarako.

#### **5. EMko ekipo berriak eta langile-premiak.**

Zuzendari Gerenteak OSATEKen langile-beharrak azaldu ditu, eskariaren gehikuntzari heltzeko eta erresonantzia magnetikoko ekipo berriak instalatzeari ekiteko. Kontseiluak egokitzat jo du gaia hurrengo bileretan eztabaidatzeko uztea.

#### **6. Lan-baldintzak eta negoziazio kolektiboa.**

Zuzendari kudeatzaileak Kontseiluari jakinarazi dio urtearen bigarren zatian hitzarmen kolektibo berri bat negoziatzeko prozesua hasteko asmoa duela. Ez dirudi egokia denik prozesua lehenago hastea, apirilean hasiko baita hauteskunde sindikalen aldia.

Negoiazioan interes-puntu gisa sartuko dira, besteak beste, azken urteetako lan-araudiaren eguneratzeak, HKEEk urteko auditoretzetan planteatutako desadostasun-gaiak, ordainsari-eredua, kontratazio-prozedurak edo karrera profesionala.

#### **7. Galde-eskeak.**

Aztertze beste gairik ez dagoenez, bilera 18:30ean amaitu da.

IDAZKARIA

sin.: Susana López Altuna



LEHENDAKARIA

Sin.: José Luis Quintas Díez

